

bidegileak



Janamari Malharin (1912-2001)

Egilea:

DANIEL LANDART

F

Mademoiselle Malharin

ede suharreko sinestuna zen. Laikoa izanagatik, Jainkoari eta Elizari osoki emana zitzaien. Bertute handia zeukan. Langile paregabea zen eta orotan tre-bea. Zorrotza zen berarentzat, halaber besteentzat. Haren begiradak, hasieran, begiak apalarazten zizkizun, eta gero, irudi zuen, entzuten zintuelarik, kontzientzia ikertzen zizula...

Ahots ozena zuen eta hitz guztiak ongi ahoskatzen zituen. Mintzatu aurretik mihia zazpi aldiz itzulikatzen zukeela dudarik ez, baina gogoan zuena mihian bilorik gabe erraten zuen.



Janamari Malharin (1912-2001)

Haren aholku zuhurrak, denek gain-gainetik preziatzen zituzten, eta nork daki, bere bizi luzean zenbat eman dukeen...

Frantsez irakaslea bazen ere, goizik ulertu zuen euskarak bere tokia behar zuela Euskal Herriko eskoletan eta lehen-lehenetatik izan zen xede horren alde borrokatzeko.

Funtsean, berak umiltasunekin zioenez, bere bizi osoa borroka bat izan da, jende xehearen ahal bezainbat argitzeko, laguntzeko, eta hori, molde askotara.

Eta hona, bere bizia nola laburbiltzen zuen:

Donapaleun hazia,
Hazparnen hasia,
Lekuinen «hezia»,
Mugarren «asia»,
Itsasun ehortzia.

Beraz, berak eman hariari jarraituko gatzazkio, eta horrelaxe, hobeki jakinen dugu nor zen Mademoiselle Malharin, zeren inork ez baitzuen deitzen Janamari edo Jeanne-Marie, baizik eta bere «egiazko» izena baitzen: *Mademoiselle Malharin!*

Donapaleun hazia...

Jeanne-Marie (Janamari) Malharin 1912ko otsailaren 1ean sortu zen Ostankoan (frantsesez Orsanco). Aitaren izena Jean (Manex) eta amarena Marie (Maddi) Hitta. Hamahiru haur ukan zituzten, bata sortzean berean hil zena.

Hona beste hamabien izen ofizialak zaharretik haste: Charles (Xarlex), Gracieuse (Xaxine), Marguerite (Margitta), Catherine (Kattalin), Jeanne-Marie (Janamari), Marie (Maia), Elisa (Elix), Frédéric, Pierre (16 urtetan hila), Charlotte (Xarlota), Louise (Luixa) eta Françoise (Frantxixa). Kakotxen artean ezarri ditugu familiarki erabiltzen zituzten izenak.



Gurasoak: Manex Malharin eta Maddi Hitta

Ostankoan sortua bazen ere, Janamari Malharin ez zen luzaz egon herri horretan. Aitamak, etxetiarrak izanez, maiz aldatzen ziren etxez, Jondoni Martine edo San Martin egunean, azaroaren 11n.

Ostankoatik Arberatzera joan behar ukan zuten, gero Aiziritzera, eta azkenean, Amikuzeko hiri nagusia den Donapaleun kokatu ziren. Donapaleun pasatu denboraldiaz oroitzapen ona atxekitzen baitzuen, horra zergatik bere biziaren laburpena hasten zuen erranez: *Donapaleun hazia...*

Janamari, Aiziritzeko eta Donapaleuko lehen mailako eskolan ibili ondoan, Uztaritzeko *Les Filles de la Croix* komentuko ikastetxean egon zen 16 urte arte.

Hazparnen hasia

Bere lehen lanpostua Hazparnen ukan zuen, 1928an. Eskola giristino hartako zuzendaria Mademoiselle Elichondo zen. Irakaskuntzan esperientzia handia zeukan eta bere inguruko irakasleak arretaz sustengatzen eta laguntzen zituen.

Gure errientsa edo eskola-maistra gazteak deblauki aitortzen zuen harekin asko eta asko ikasi zuela pedagogia alorrean. Ongi hasia zen beraz...

Hazparnen 7 ikasturte beterik, eta ikusirik «aprendizgoak» ezin hobeki eginak zituela, Baionako elizbarrutiko Hezkuntza Giristino-ko Zuzendaritzak Lekuineko eskolara bidali zuen. Lekuine, (frantsesez Bonloc), Hazparnetik lehen herria da, Donapaleuko bidean.



Hazparneko irakasleak: lehen lerroan Elichondo anderea

Lekuinen hezia

Garai hartan, eskola giristinoa erabat lotua zen Eliza katolikoari, eta beraz, parroketako apaizei, haiek baitzituzten ikaskuntza pribatu-ko irakasleak ordaintzen. Eskolako gorabeherak xeheki jakiteko, Jean-Pierre Etchechoury erretoreak irakasle berria jarraituki gonbitatzen zuen bazkaltzera. Biek asko hitzegiten omen zuten eta bakoitza aberasten zen bestearen jakitateaz...

Bainan horra... Apaizak gelaria edo neskamea bazeukan. Eta emazte hari ez zitzaion batere gustatzen irakasle gaztea jaun erretoreari hain erraz mintza zekion! Elkarrizketa intelektual haiek, ez zituen ulertzen ez eta ere onartzen. Oroz gainera, «bere» apaiza tentatitiotik zaindu nahi zuen. Horretarako bide bakarra: irakasle berriaren ahal bezainbat umiliatzea, Lekuinetik lehenbailehen joan zedin! Eta beraz, maiz gaiztakeriak egiten zizkion, apaldu eta okaztatu nahiz.

Emazte baten bekaizkeriagatik, «hezia» izan zen bai, baina ez zentzu onean!

Bertute handikoa izanez, ez zuen amor eman, eta hain zuzen, Lekuinen zelarik ohartu zen euskararen garrantziari, sinesgaitzeko gertakari bati esker. Jakin zuen, ama batek, bere bi alabak, hamabi-hamalau urtekoak, gau eta egun etxe barnean atxekitzen zituela, ezku-

tuan. Bere senarretik bereizia izanez, beldur zen, beldur eta nola!, aita haurren bila etorriko zela eta berekin eramen zituela.

Bi neskak ez ziren egundaino eskolan ibiliak. Inor ez zen etxe hartara hurbiltzen. Janamari gaztea, makila luze bat eskuan harturik, oinez joan zen etxe hartara, eta Jainkoaren mirakuluz edo, atea ireki zioten. Amarekin eta haren ahizpa batekin mintzatu ondoan, bi neskatxak nolabait «bildu» zituzten. Etengabe dardarka ari ziren.

Irakasle gaztea berehala ohartu zen eleketa ez zekitela, edo bederen, ahoa ez zutela behar bezala irekitzen. Serasatena ulergaitza zela. Bere eskolako orduak bukatu ondoan, maiz ibili zen etxe hartan, eta pazientziarekin eta denborarekin, irri ederreko bi nexkatxa haiek ikasi zuten mintzatzen, irakurtzen eta kontatzen. Eta nola? Euskaraz. Bakarrik euskaraz. Ezin egin bestela! Eta egun batez, neska haietatik bati, frantsesez zerbait erran ziolarik, hark oihu batean erantzun zion: «Mintza behar bezala!».

Neskatxa haiekin ukan zuen esperientzia, bere bizi osorako argigarri eta baliagarri gertatu zitzaion. Haiei esker ulertu eta frogatu baitzuen euskara hutsez ere irakats zitekeela.

Lekuinen, bi ikasturte egin zituen. (1935-36, 1936-37).



Hamaika haurrideak elkartuak, horietan lau moja!



Mugerren 30 urtez

azte-gaztea zela oraindik –25 urte!–, Mugerreko *Sainte-Marie* eskolako buruzagi izendatua izan zen eta kargu hori hogeita hamar urtez bete zuen, 1937tik 1967ra. Bere egoitza eta eskola elkarri lotuak ziren.

Baionatik sei kilometrotara dagoen Mugerre herria tarroa izanez, eskola giristinoan, hasieran bi klase zeuden, geroxeago hiru. Janamari Malharin andereñoak «eskola handian» edo handien klasean irakasten zuen. Garai hartan, haurrak 14 urte arte egoten ziren herrietako eskoletan. Baina orokorki, denetaz arduratzen zela, dudarik ez. Bestalde, urruti bizi ziren haurrek han bertan bazkaltzeko aukera bazuten, eta beraz, haietaz ere axolatu behar zuen.



Mugerreko eskolako haurrak



Hasieran, bakarrik neskak ziren eskola giristinoan ibiltzen..., eta garai hartan, 14 urte arte

Baina eskolako grina guztien gainetik, beste alor askotan lan ederrik egin zuen.

Andere Serora

Lehen-lehenik aipa dezagun Eliza emaztea. Mugerreko elizaz arduratzen zen. Kargu horri deitzen zioten *Andere serora* izatea. Astero, elizako garbiketak egiten zituen eta aldarea loreztatzen zuen. Igande goizeko bi mezetan eta jai egunetan *harmoniuma* jotzen zuen. Halaber, igande arratsaldetan *Bezperak* kantatzen zirelarik. Bestalde, haurrei kristau-ikasbidea irakasten zien.

Larunbatero, ilunabarrean, jaun erretorearen edo parrokoaren ikustera zihoan eta elkarrekin hautatzen zituzten igandeko goiz-mezan eta meza nagusian zer kantatu mota emanen zuten. Denbora berean, apaizak irakurtzen

zion frantsesez idatzia zuen predikua eta biek euskararatzen zuten. Batzutan, luzaz eta luzaz hitz edo erranaldi egokiaren bila zebiltzan... Jean-Pierre Urricariet, Pierre Harignordoquy eta André Béhéran apaizekin eraman lan hura arras gogokoa zeukan, horrela, berak ere, bere euskara aberasten zuelako.

Bestalde, Eliza emaztea izanez, Frantzia osoan zabaldua zen *Ligue Féminine d'Action Catholique* eta geroago *Action Catholique Générale Féminine (A.C.G.F.)* ligako bilkuretan parte hartzen zuen. Elkarte hark bere agerkaria bazeukan *Echo des Françaises* deitua eta Euskal Herrian euskarazko bihilabetekari gehigarria *Etchea*, Pierre Narbaitz jaun kalonjeak zuzentzen zuena.



Geroxeago, mutikoak ere onartu zituzten



Mugerreko eskola giristinoko ikasgela



Mugerreko haur dantzariak. Eskuinean, Malharin; ezkerrean, Peyroutet apeza

Eri artatzailea

Eliza zerbitzatuz arimak salbatu nahi baldin bazituen, gorputzez ere axola handia zeukan. Eri bati edo zauritu bati egin behar zaizkion lehenengo artak arras ongi ezagutzen zituen eta urte luze-luzeetan Mugerreko etxe askotan ibili zen artatzaile gisa, pairamenean zegoen bakoitza sokorritzen zuela.



Mugerreko eliza, kanpotik eta barrurik

Gerla denboran

Frantziak, 1939an, gerla galdu zuenean, Alemanak sartu ziren ia erresuma osoan eta frantses soldaduak preso altxatu zituzten. Gehienek egon behar ukan zuten Alemanian eta Polonian, bost urtez.

Haien laguntzeko zerbait egin behar zela eta, Janamari Malharin hasi zen bere eskolako neskatxekin antzerkitxoak egiten. Sarreratik bildu diruarekin, arropak eta gauza premiazkoak erosten zituen eta atzerrian zeuden Mugertar gizon gazteei igortzen zizkien.

Horrela lotu zitzaion antzerkigintzari: lehenik karitate egiteko. Baina laster ohartu zen antzerkilaritzak alde on franko baduela: herriko gazteak biltzeko eta formatzeko, bakoitzak bere baitan konfiantza hartzeko, oroimena lantzeko, eta euskal kulturaren hobeki ezagutzeko.

Hasieran, bere eskolako haurrekin frantsesezko antzerkitxoak eskaintzen zituen. Gerla ondoren, Mugerreko gazteak laguntzen zituen euskarazko antzerkiak apailatzen, geroago ikusiko dugun bezala.



Mugertarrak taldeak Lartzabalen Etxehun eman zuen 1967an

Bezperak euskaraz

1947ko larunbat ilunabar batez, Urricariet apaizak erran zion Aita Xabier Diharce –Iratzeder izenordez ezagutua– bisitaz etorriko zitzaiela proposamen batekin. Eta zer zen delako proposamena? Bezperak euskaratuak zituela eta nahi zuela lehen aldikoz Mugerreko elizan kantatuak izan zaitezen. Heldu zene-ko «kantu ezti bat hasten da behin, apal eta uzkur, Aita Xabier bera. Jaun erretorea laster lotzen da goratik, eta luza gabe, hiruak zein lorioskiago ari dira, beroan bero, joanago eta gozoago!» idazten zuen Janamari Malharin andereñoak, 1984ean, *Otoizlari* agerkariko 114. zenbakian. Horrelaxe segitzen zuela: «Zenbeit astez, salmo eder hek, Sakramendu

Sainduaren bezperetako arteko-kantuekin, sartu dira Mugertarren gogo-bihotzetan. Airoski eman dituzte hilabeteen behin, jendea bezperetara jarraiki den denbora guzian: hamar bat urtez. Gero urtean lau-bost aldiz, besta-buruetan. (...) Bezpera horietaz herria urgulutan zagon! Eskuarazko lehen bezperak!».

Derragun, garai hartan, meza eta bezperak latinez kantatzen zirela. Pierre Narbaitz Baionako elizbarrutiko Ekintza katolikoaren idazkari nagusiak eman zien Mugertarrei isilkako baimena *Sakramendu Sainduaren Bezperak* euskaraz kantatzeko. Eta Janamari Malharin zinez harro zegoen esperientzia eder hartan parte harturik.



Aita Xabier Iratzeder, olerkaria eta bezperen euskaratzailea



Igande arratsaldetan, bezperetarik landa, herriko neskekin: paseatzen, kantuz eta jolasean

Euskara eskolan

Mugerren, bi euskaltzale suharrek kuraia eman zioten. Haiek ziren: Jean-Pierre Urricariet Mugerreko erretore egon zena 1945etik 50era eta Gonzague de Séreville familia ospetsuko nagusia.

Urricariet, Biarritzen bikario zenean, *Oldarra* dantza eta kantu taldearen sortzailetarik izan zen. Janamari Malharinek miresten zuen Urricariet. Hartaz mintzatzen zenean, ez zekien apaiz kulturadun hura nola aski lauda...

Gonzague de Séreville jaunak aldiz pixka bat zirikatzen zuen: «Euskara irakatsiko diezu, ez? Ez ahal dituzu gure haurrak euskara ahaztera utziko!»...

Erantzuten zion: «Nik, ene ofizioan ez dut sekula euskara irakatsi. Baina hona etsenplu bat: aste honetan lehen mailako hurrek lan-tzen dute baratzea. Landareak, tresnak eta gauza guziak. Izenak behar dituzte ikasi eta nola idazten diren. Nik egiten dudana, frantsesezko hitzaren parrean ematen dut euskarazkoa eta haurrak berehala ikasten du batetik bestera pasatzen. Biak batera hobetzen dituzte...».

Frantzia mailan, *Deixonne Legea* bozkatua izan zen, 1951n, herriko mintzairak irakasteko erraztasun apur bat emanez. Mgr Gieure Baionako jaun apezpikuak ere, aspaldian, agindua zien eskola giristinoen irakasleei tokiko hizkuntzen erabiltzea, dela katixima, dela kantu, etab.



Eskola giristinoetako irakasleak Pauen. Erdi-erdian, Houbaut Baionako apezpikua; saihetsean, Denis Lamy, eskola giristinoetako zuzendaria; Malharin, goiko lerroan, ezkerretik lehena

Zuriak eta gorriak

XIX. mende bukaeran, Frantzia mailan, sekulako borrokak sortu ziren errepublikanoen eta erregetiarren artean. Euskaldunek, errepublikanoak *Gorriak* deitzen zituzten, erregetiarrak edo bonapartistak aldiz, *Zuriak*.

Hogeigarren mendean ere –1960a arte non-bait han– bi alderdien arteko gatazkek iraun zuten. *Gorriak*, besteak beste, eskola publiko eta bakarraren aldekoak ziren. *Zuriak*, kristau eskola pribatua sustengatzen zuten.

Gerla zikin eta samin hura, Mugertarrek bizi izan zuten ezinago barnagotik, 1950. urteetan. Herrian bi zati zegoen. Pierre Harignordoquy erretorea eta Jean-Baptiste Biella auzapeza *Zurien* aldekoak; eskola publikoko zuzendaria eta bertako gurasoak, *Gorrien* izenean, eskola giristinoaren etsai amorratuak!

Egoera larri hartaz, Janamari Malharinek nahiago zuen ez hainbat mintzatu. Zernahi sufriarazi baitzioten. *Gorriak* hartaz trufatzen edo burlatzen ziren. Izengoititzat *Dick* eman



Jean-Pierre Urricariet, euskaltzale suharra



Daniel Landart eta J. Malharin

zioten. *Dick* apaizaren txakurraren izena zen! Bere eskolaren eta elizaren artean, ostatu bat bazegoen. Haren aurretik pasatzean, maiz entzuten zituen gizonak oihuka: «*Dick, te! Dick, te!*»... Hitz joko bat zen ere. *Dictée*, garai hartan, Malharin andereñoak, beste frantses irakasleek bezala, egunero erabiltzen zuen hitza! (*Dictée*= diktaketa).

Zurien eta *Gorrien* arteko eztabaida latz haiek, eta bereziki eskola giristinoaren aurkako erasoek, bultzatu zuten «eskola libroaren» alde oraindik lan gehiagoren egitera! 1954ko irailan, *Emazteen tenoria* eskuizkribuan, hain zuzen, bi eskola mota haien arteko hautua aipatzen zuen, emazteei dei eginez, eta horrelaxe bukatzen zuen: «Urguluz eta fantesiaz uzten badugu fede gabekoen eskuetan gure familia, akabo da laster gure izaitea. Gure haurrak jinen dira guk nahi ez bezalakoak, ez zuzentasun ez jendetasun, errorik gabe! Bertute horien erroa Jainkoa baizik ez ditake izan. Pika erroa, nola jinen da landarea? Emaztea Jainkoari beha deno salbu da jendetea! Ezen gizonak bere arimako indarra emaztea baitan baitu. Atxik finki gure gogo, obrak Jainkoari lotuak!».

Beste irakasle lagun zenbaitekin, hortzez eta haginez borrokatu zen eskola giristinoa Frantses Gobernamenduak bere legedian onar zezan. (1959an, *Debré Legea* bozkatua izan zen eta geroztik eskola pribatuko irakasleak Gobernuak ordaintzen ditu).

Eskuizkribua

Utzi zituen paperetan, Katty Malharin-Itzaina haren ilobak kaier edo koaderno interesgarri bat aurkitu zuen. Hogeita hamar artikulurekin. Denak eskuz izkribatuak eta lehenago egiten zen bezala, tintaz! Artikulu bakoitzaren urtea eta eguna agertzen dira. Lehena, 1950eko abuztuaren 14an idatzia izan zen, azkena 1958ko abenduaren 18an. Artikulu laburrak dira. Adibidez, 1951n, 7 egin zituen, 1955ean beste hainbeste. Hiruzpalau artikuluren pean *May-Chan* izenordea agertzen da, beste behin *Jean*. Hiru itzulpen ere badira, bata Paul Claudel frantses idazlearena. Bere artikuluetan, bereziki emazteei mintzo zitzairen, senarrei ere batzutan, aldiro aholku zuhurrak emanez.

Eskuizkribuko artikulu haietatik zenbait *Herria* astekariak argitaratu zituen. Adibide gisa, hona hemen 1955eko abenduaren 15ean agertutakoaren izenburua: *Ezkerret, maladret*. Gaia: ezkerra den haur bati ez zaiola esku ezkerrez idaztea debekatu behar! Azken erranaldia horrela bukatzen zuela: «Utz ditzagun beraz haurrak ontsa zaioten eskuaz baliatzera nahi lanetan, zer dela jaten dela izkiriatzen. Ez dezagun nehola ere afruntu har gure haurra ezkerret ikustea. Eskuinaz zeinaten jakitea aski du! Gaineratikoak, edozoin eskuz egin bitza, egiten dituen ber! *May-Chan*».

Bestalde, garai hartan, Mugerreko berriak jarraituki ematen zituen *Herria* astekarian.



Mugertarrak taldeak Lartzabalen Etxehun eman zuen 1967an

Mugertarrak taldea

Mugerren zeno, 25 urtez jardun zuen antzerkigintzan. Zuzendari gisa, lehenik, antzerkia hautatzen zuen, eta gero, entsaio bakoitz, bere aholku zuhurrak ematen zituen. Eta beraz, urtero, antzerki berri bat eskaintzen zuen *Mugertarrak* taldeak. Gehienetan, Piarres Lartzabalen obrak ziren, hala nola *Herriko bozak*, *Hila espas*, *Etxahun* edo Telesforo de Monzonen *Gure behia hila da*.

Baina Mugerren egon ziren ere bikario, Paul Guilsou (1945etik 1952a arte) eta Ernest Bidegain (1952tik 1954a arte).

Biak euskaltzaleak ziren eta taldearentzat antzerkiak idatzi zituzten. Lehenak, *Kakerre*, *Koropillo*, *Seme galdua* bai eta Molièren *Le médecin malgré lui* euskaratu zuen *Pettan mihi-ku* izenburupean. Ernest Bidegainek aldiz *Manez Azeri* egin zuen, Molièren *Les fourberies de Scapin* obraren arabera.

Malharin andereak, besteak beste, goraipatzen zituen antzerkilariak ziren Jean Lavigne,

Pierrot Larre, Jeannot Larronde, Martxela Larre, Jeannot Elissale eta Joséphine Daymon. Jokolari paregabe haiei eta zuzendariari esker, Mugerreko taldea famatua zen.

Iparraldean antolatu antzerki lehiaketa batean parte hartu zuen 1951n. Finala, Hazparnen iragan zen. Bertako taldea ere biziki ona izanez, denek uste zuten saria irabaziko zuela. Baina Mugerreko taldea hobe agertu zen. Orduan epaimahaikoek auzia horrela trenkatu zuten: lehen saria Hazparnekoari eman eta Mugerreko taldea ezarri zuten *Hors concours*. Gorago ez zen igotzen ahal!

Haurren primak

Euskararen alde, ipar Euskal Herrian, 1960a arte ia bakarra izan zen *Eskualzaleen Biltzarra* elkarteak, urtero, eskoletako haur eta gazteei, euskarazko lan bat proposatzen zien, eta saritzat, hoberenek dirua eskuratzen zuten. Garai hartan, Jean Elissalde *Zerbitzari* euskaltzaina zen sariketaz arduratzen.

1959ko abuztuaren 6an agertu *Herria* asteakaria, «eskualzaleentzat bereziki egina» izan zen eta hona lekukotasun interesgarri bat: «Mugerre-Aldudetik Santagrazirat herri gutisko da naski urte guzietz, Jainkoak egin dituen guzietz gero!, *Eskualzaleen-Biltzarreko*



Euskaltzaleen Biltzarra. Ezkerretik eskuinera: Sauveur Narbais, André Ospital, Jean Haritschelhar, Janamari Malharin, Louis Dassance, Mixel Labeguerie, Etinne Pochelu eta Tereza Lerembure-Seguín

deiari ihardesten duenik Mugerrekoak bezala. Zertako? Mugerre mugan baita, kaskoin herriaren mugan, eta, hortaz oroit, herrian baita norbeit eskuararentzat hortzez eta haginez lanean ari denik: Mugerreko andere errientsa! Sekulan *Eskualzaleen-Biltzarrak* deliberatzen balu, medaila batez edo nolahi bere langile leialenen sariztatzea, ez luke ahortzi beharko andere Malharin bat: hainitz zor dio eskuarak. Bai-eta *Eskualzaleen-Biltzarrak!*». Eta ondotik 8 irabazdunen izenak agertzen ziren.

Ohidurak elkarte

Angeluko *Orok Bat* dantza taldeak bultzaturik sortu zen *Ohidurak* elkarte 1959ko otsailaren 18an. *Orok Bat* taldeko lehendakaria Georges Poirier komandantea zen, eta bertako dantza eta txistu irakaslea, Jean Nesprias. Oharturik Euskal Herriko haurrek ez zituztela gehiago ohiko dantzak ikasten, Jean Nesprias gazteak, 1954an, erabaki zuen, profesionalki, eskolaz eskola abiatzea, eta lehenik, eskola giristinoetatik hasi zen. Horretarako,



Dantza ikastaldiak. Zutik, bigarren lerroan, eskuinetik hasita bigarrena, Malharin

baimen benedikatua Roger Etchegaray apaizak eman zion (gaur egun kardinale dena, eta garai hartan, Baionako elizbarrutiko Ekintza Katolikoaren idazkari nagusi zena). Eta Mugerreko eskola pribatuko zuzendaria izan zen Jean Nesprias deitu zuen lehenetarikoa. Baina ez zen garbiki erraten ahal dantzak irakasten zituela. Paper ofizialetan agertzen zen: «Monsieur Jean Nesprias assure chaque semaine une heure de gymnastique rythmique et folklorique».


Bost urtez, sekulako lana egina izan zen. Jean Nespriasek ikastaldiak ere antolatzen zituen, euskal gizartearen eta kulturaren hobeki barrantzeko. *Ohidurak* sortu zelarik, 30 eskola edo/eta talde partaide ziren.

Janamari Malharin, hastapenetik bulego kide izan zen, diruzain gisa. 1961ean, Biltzar Nagusiko bilduma hark egin baitzuen, hari esker jakiten dugu beraz nor ziren orduko buruzagiak: Georges Poirier komandantea (lehendakari ohorezkoa), Michel Burucoa medikua (lehendakaria), Michel Lecuona apaiza (idazkaria), Mademoiselle Malharin (diruzaina), Jean Hiriart-Urruty apaiza (kontseilaria).

Hamabi urtez egon zen *Ohidurak* elkarteko zuzendaritzan.

Ikas elkartearen sorrera

Urte garrantzitsua izan zen Janamari Malharin anderearentzat 1959ko urtea, abuztuaren 27, 28 eta 29an antolatuak izan baitziren *Les grandes journées pédagogiques basques*, Baionako Euskal Erakustokian. Mugerreko irakasleak bere lekukotasuna argi eta garbi eman zuen bigarren egunean: *Une expérience de bilinguisme à l'école primaire*, elebitasunaren sustraiak xeheki aztertuz. Eta hauxe zioen: «gure haurrek, hiruetatik biek, beren familietan, gaskoiera edo euskara ikasten dute. (...) Gascoiera edo euskara dakien haurrak, frantsesa ikasterakoan, aberastasun bat badauka, kultur lanabes bat, frantsesa baizik ez dakienari eskas zaiona. Laster konparazioa egiten ahalko du. Eta konparazioa jujamenduaren



Ikas elkartearen sorrerako ihardunaldien egitaraua

abiapuntua da, eta beraz, gustuaren formakuntza, hautuaren bidez. (...) Haurrei gogoan sarraraziz beren ama-hizkuntzaren arbuioa, gaskoiera edo euskara sistematikoki gaitzets lezakeen irakaslea, sadiko bat litzateke!». Eta luzaz esplikatu zuen, mailaz maila, elebitasuna nola erabili behar zen.

Orduan erabaki zuten euskal irakaskuntzaz arduratuko zen *Ikas* elkartearen sortzea eta lehen zuzendaritzako partaideak hautatu zituzten. Janamari Malharin lehendakariorde izendatua izan zen. «Berehala hasi ginen lane-

an. Lafitte jaun apaizak eta Sauveur Narbaitse errientak egin zuten *Ikas* liburuxka. Narbaitsek eskola publikoko bere lagunei eta nik eskola pribatukoei helarazi genien. Lehen urtean, mila bostehun bat lan bildu genituen eta sari ederrak eman, *Kontseilu Orokorrak* eta *Eskualzaleen Biltzarrak* diruz lagundurik.»

Derragun, urtero, ordu luze-luzeak eta batzutan egun osoak pasatzen zituela haurren kopiak irakurtzen eta oharpenak egiten. Hala-ber, eskola pribatuetako irakasleei elebitasunaren garrantzia aldarrikatzen!



Itsasuko Saint-Joseph eskolako haurrak, 1967-68 ikasturtean

Mugerren asia

Dena dela, Mugerren iragan zituen azken urteek halako oroitzapen kirats edo mingots bat utzi zioten. Lan gehiegi ote? Ba pentsa! Ez zuen ez, lanak izutzen... Baina bitartean, erre-tore berri bat etorri zen, eta egia deblauki errateko, ez ziren ongi konpontzen. Janari edo egoera batez, erabat ase-a zarenean, gohaindua, *asia* edo *asiia* ahoskatzen da ipa-rraldean. Horra zer gertatu zitzaion andere irakasleari eta tokiz aldatzea eskatu zuen.



Itsasuko Maldargia etxean bizi zen Malharin, azken urteetan

Itsasun ere, beti lanean

Itsasuko Saint-Joseph eskola pribatuko irakas-le izendatu zuten 1967ko irailean, zuzendari zeukala Soeur Annie Balladé. Haren egoitza berria *Etxettoa* deitzen zen. Urte baten buru-ko eskolaren zuzendaritza hartu zuen. 1971n, arazo larriak ukan zituen osasun aldetik. Sekulako zorabioak..., eta bere irakasle lana ez zezakeen behar bezala egin. Baina halere, eskolaren zuzendaritza segurtatu zuen 1974a arte. 1975ean, erabat utzi zituen irakaskuntza mundua eta *Etxettoa*. Baina Itsasun berean gel-ditu zen, *Maldargia* etxean. Etxe horren jabeak dira, Mixel Itzaina bertsozalea eta bere emaz-tea Katty Malharin, gure protagonistaren iloba.

Itsasun ere, Mugerren bezala, segitu zuen eli-zako *harmoniuma* jotzen eta interesatuak ziren nerabe edo/eta gazte batzuei haren ira-kasten. Haurrei katixima egiten zien. Karita-tezko obra onez ezin hobeki arduratzen zen. Bertako euskal antzerki taldearen zuzenda-ritza 8 urtez segurtatu zuen.

Baina oroz gainetik, eskoletan egiten ziren euskarazko lehiaketez arduratu zen. 1988ko irailaren 4an, Uztaritzen egin zuen mintzal-dian haxe zioen: «Hats hanturik zagon Ikas, bertze bide batzuetara bazterturik, nun berriz Euskaltzaleen Biltzarrak eskuetan hartu baitzuen eskoletako zoin gehiagoka. 1973tik goiti, Angèle Errandonea andereak

Gobernioko eskolak, eta nik bertzeak, lagunduz, akulatuz, saristatuz, joan dira 12 urte. Hiru urte hauetan, Centre Culturel du Pays Basque Baionakoak laguntza haundia ekarri du, bai lan sailaren partetik, bereziki Elena Touyarou-Phagaburu andereari esker, bai sarien partetik».

Jakin behar da, Janamari Malharin, kasik 80 urte zituela, bere 2 CV auto ttarrattadunarekin, oraindik eskolaz eskola ibiltzen zela, haurrek egin lanak hurbiletik kontrolatzeko eta gero sariztatzeko baita irakasleak euskararen alde akulatzeako, suspertzeako!



Janamari Malharin eta Joana Itzaina

Irrati bidez

Itsasun, ordurarte hunkia ez zuen sail bati lotu zitzaion: irrati bidez herriko berriak emateari. 1989an hasirik eta 2001eko apirilaren 2a arte, Baionan kokatua den *Gure Irratian*, astelehen goizero, Itsasuko berriak zabaltzen zituen, bere emankizuna beste inork ez bezala hasten zuela «Jainkoak dizuetela egun on» erranez.

Beste irrati batentzat ere lan egin zuen. 1992an, giristino multzo batek sortu zuelarik *Lapurdi Irratia*, zuzendariak galdetu zion egun bakoitzeko sailduaren bizitza kontatzea. Berehala onartu zuen, eta urte batez, frantses liburu baten arabera, itzulpenak egin zituen, lan horretan Marijane Minaberry euskaltzain ohorezkoak laguntzen zuela.

Malharin eta Minaberry, bi andere euskaltzale handi



Hirutan omendua

Bizi zeno, hiru omenaldi eskainiak izan zitzaizkion Janamari Malharin euskaltzaleari.

Bata, Senperen, 1992ko maiatzaren 23an. Antolatzaileak ziren: *Ikas* eta *Euskaltzaleen Biltzarra* elkarteak. Egun berean, Marijane Minaberry ere ohoratua izan zen. Hona, Malharin anderearen mintzaldiko azken hitzak: «Esker-tzen ere ditut beti akulatzen eta sustatzen ari izan zaizkidan aintzindari jaun argiak: Chanoine Denis Lamy, izanagatik Biarnesa, Urricariet, euskaltzale haundia, Chanoine Louis Mendi-boure gizon apal eta isila, beti alde ukan duda-

na. Hanbat erakasle lagun bertzalde eta zuek ikasle ohiak, antzerkilari errabiatuak eta dantzari erneak. Zueri eta zuen burhasoen bihotz onari esker iraun baitut denetan. Ororen buru, eskerrak Jainkoari!».

Bigarren, Azpeitian, 1994eko abenduaren 20an, *Antzerki Topaketak* zirela eta. *Emakume egileak euskal antzerkian*, hiru zuzendari goraipatuak izan ziren: Maria Arizmendi (Urnieta), Janamari Malharin (Itsasu) eta Miren Arrizabalaga (Ondarru).

Hirugarrena, 2000ko abenduaren 23an, Baionako udaletxean, *Ikas* elkarteak bere 40 urteak ospatu zituen egunean.



Malharin eta Minaberry andereen ohoretan omenaldia Senperen E.B.k eta *Ikas*-ek. Ezkerretik eskuinera: Malharin, Daniel Landart, Andde Luberriaga, Bessonart, Albizu eta Minaberry



Azpeitiko udaletxean Antzerki Topaketako omenaldia



Malharin, Miren Arrizabalaga eta Maria Arizmendi antzerkizaleei omenaldia

Itsasun ehortzia

Eritasun eta ahulezia franko garaiturik ere, urteen zamak ez du amor ematen. Bere azken hatsa eman zuen 2001eko abuztuaren 11n. Bi egun beranduago, parrokiako *San Murtuts* eliza gainezka betean iragan ziren haren ehorzketak, dena otoitz eta kantutik.

Eta berak nahi zuen bezala, Itsasuko *Maldargia* familiako hilobian ehortzia izan zen, abuztuaren 13an.

Eta bukatzeko, oroitzuz oroz gaineratik fede suharreko sinestuna zela, haren ehorzketa mezako *Fededunen* otoitzaren azken xedea agertuko

dugu hemen. Joana Itzaina haren birbilobarena da, berak idatzia eta berak irakurri zuena: «Tanta... Bagenituen hainbeste gauza oraino zugandik ikastekoak. Hainbeste zorion elkarrekin partekatzeak. Hainbeste pena elkarrekin gainditzekoak. Hainbeste irri elkarrekin egitekoak. Zenbat hitzordu, denborarik aski ez genuelako, bazterrera utziak? Alta errana zenigun: gero dionak, bego dio! Horiei pentsatuz lagun gaitzazu gain hartatik biziari gora zu bezala joaten, zure mitxaren oroitzapena itxaropen sortzaile izan dadin gure gogoan eta itzulian ditugun jende guztien baitan ere, nahiko zenuen bezala. Egin dezagun otoitz».



Ikas elkartearen 40 urteak Malharinen lekukotasun hunkigarritz, 2000ko abenduaren 23an

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- Katty Malharin-Itzaina
- Jean Nesprias

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko uztaila

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-1973-4 (Lan osoarena)
84-457-1976-9

L.G.: S-797-2003